



ASTARLOA
KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA



Gardentasunerako eta Informazioaren Sarbiderako Plana

Astarloa Kulturgintza

(2. bertsioa, 2019/10/31)

AURKEZPENA

Gardentasunak, informazio publikoa eskuratzeko bideak eta gobernu onaren arauak izan behar dute ekintza politiko ororen funtsezko ardatz administrazio publiko guztietan.

Arduradun politikoen jarduna aztertzen denean, herritarrek jakiten dutenean nola hartzen diren eragiten dieten erabakiak, nola erabiltzen diren funts publikoak edo zein irizpideren arabera jarduten diren gure erakundeak, orduan soilik esan dezakegu hasi dela botere publikoek gizarte kritiko eta zorrotzari, botere publikoetan parte hartzeko aukera eskatzen duen gizarteari, erantzuteko prozesua.

Astarloa Kulturgintza (AK) erakunde autonomoak gardentasuna indartu nahi du (modu proaktiboan), eta, bidez batez, herritarrek informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatu (erabiltzaileak izan nahiz ez). Horretarako, herritarrek jakin behar duten informazioa, eta, beraz, argitaratu behar duguna zein den aurreikusi behar dugu, eta, era berean, egokitzat jotzen den informazioa AKri eskatzeko bideak ezagutarazi behar ditugu.

Indarreko plan estrategikoan, eta, zehatzago, balioen eremuan, honako hau adierazi dugu:

“Inspiratzen gaituzten balioak ... • Zerbitzu publikoaren bokazioa eta kudeaketaren gardentasuna...”

Plan honetan, lerro estrategiko bat dugu, honako hau adierazten duena:

“Erakundean gardentasun-plana ezartzea”

AK dagoeneko hasi da “gardentasunaren ataria” izenekoan jaso behar diren elementuak argitaratzen. Orain, plana areagotu eta edukiz osatzeko unea da. Baina ez dugu egingo “ad hoc” atariaren bidez; baizik eta informazio askotariko eta sistematizatuaren bidez, korporazioaren webguneko menuen barruan.

Astarloa Kulturgintzak gardentasun-eremua jorratuko du bere webgunean, baina baita herritarrekin elkarrekintzan aritzea ahalbidetzen dion beste edozein bitartekotan ere (batez ere, gizarte-hedabideetan), erakundearen jardueraren gardentasuna eta ekintza publikoaren kontrola bermatzeko.

AKREN GARDENTASUN-EREMUAN SARTUKO DIREN EDUKIAK

Gardentasun-eremuan sartzen diren edukiak bi ardatz nagusitan egituratzen dira: publizitate aktiboa, batetik, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, bestetik.

1.a. Publizitate aktiboa

Aldian-aldian webgunearen bidez modu berezian eta gizarte-hedabideen bidez modu ukigarrian argitaratuko den informazioa da. Informazio eta eduki horiek argitaratzeko, agiri honetan bertan garatuko dugun egitura jarraituko da.

Eremua	Edukia
1. Erakundea	<ul style="list-style-type: none"> 1.1. AKren xedea, ikuspegia eta balioak. 1.2. Zuzendaritza Batzordea. Eginkizunak eta kideak. 1.3. Batzordeburua. Zer egiten duen eta nor den. 1.4. Erakundearen estatutua. 1.5. Erakundearen erabilera-araudia. 1.6. Zuzendaritza Batzordearen aktak (4 urte). 1.7. Erakundeko buruaren ebazpenak (4 urte).
2. Kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> 2.1. Plan estrategikoa. 2.2. Urteko plana. 2.3. Kudeaketa-adierazleak (aginte-taula). 2.4. Ekintza-planaren hiru hilean behingo berrikuspenak. 2.5. Kudeatzeko prozesuen mapa. 2.6. Gizarte Hedabideen Plana. <ul style="list-style-type: none"> 2.6.1. Plana. 2.6.2 Adierazleak eta horien bilakaera. 2.7. Gizartearekiko konpromisoa. <ul style="list-style-type: none"> 2.7.1 Gizarte-erantzukizun korporatiboaren plana. 2.7.2 Adierazleak eta horien bilakaera. 2.8. Gardentasunerako eta informazioaren sarbiderako plana. <ul style="list-style-type: none"> 2.8.1 Gardentasun-plana. 2.8.2 Adierazleak eta horien bilakaera. 2.9. Zerbitzu-eskaintza. <ul style="list-style-type: none"> 2.9.1. Zerbitzu-eskaintza. 2.9.2 Herritarrekin hartutako konpromisoak. 2.9.3 Konpromisoen lorpena eta hobetzeko ekintzak. 2.10. EKIE <ul style="list-style-type: none"> 2.10.1. Erreklamazio, kexa, iradokizun eta eskarien informazio grafikoa. Azken urteko hiruhilekoen alderaketa eta aurreko lau ekitaldiekiko alderaketa. 2.10.2 Erreklamazio, kexa eta iradokizunen informazio zehatza (hiru hilean behin). 2.11. Bezeroen asebetetze-inkesten emaitzak (4 urteko bilakaera). <ul style="list-style-type: none"> 2.11.1 Emaitzak. 2.11.2 Ekintza-plana. 2.12. Erabiltzaileei, okupazio-mailari eta abarri buruzko estatistikak, hilekoak, eta urteko alderaketak (4 urte) (abendua). 2.13. Espazio desberdinen okupazio-maila. Asteko egutegia. 2.14. Aintzatespenak AKri.



Eremua	Edukia
3. Informazio ekonomikoa	<p>3.1. Prezio publikoak.</p> <p>3.2. Erakundearen aurrekontua.</p> <p>3.2.1. Gastuen aurrekontua (sailkapen ekonomikoa).</p> <p>3.2.2. Diru-sarreraren aurrekontua (ekonomikoa).</p> <p>3.2.3. Aurrekontua, arlo funtzionalen arabera.</p> <p>3.3. Indarreko aurrekontuaren hiru hileroko likidazioa.</p> <p>3.4. Azken lau urteetako aurrekontuaren likidazioa.</p> <p>3.5. Erakundearen finantziazioaren egitura grafikoa eta autofinantziazioaren maila.</p> <p>3.6. Kontu orokorra (4 urte).</p> <p>3.7. Gordailutu diren eta gordailututa dauden abalak eta fidantzak.</p>
4. Pertsonak	<p>4.1. AKren organigrama.</p> <p>4.2. Langileen egitura.</p> <p>4.3. Lanpostuen zerrenda.</p> <p>4.4. Lanpostuen eginkizunak.</p> <p>4.5. Langileen kostuak eta aurrekontu-plantilla.</p> <p>4.6. Langileen hautaketa.</p> <p>4.6.1. Lan-eskaintza publikoa.</p> <p>4.6.2. Indarreko lan-poltsak.</p> <p>4.6.3. Martxan dauden hautaketa-prozesuak.</p> <p>4.7. Urteko prestakuntza-gastua (4 urteko alderaketa).</p>
5. Kontratazioa	<p>5.1. Kontratistaren ataria (Durangoko Udaleko atarira linka).</p> <p>5.2. Kontratu txikiak (4 urte).</p> <p>5.3. Hirugarrenetikiko fakturazioa (4 urte).</p> <p>5.4. Kontratuak.</p>
6. Instalazioak	<p>6.1. Kontsumoak (Erregaiak eta elektrizitatea. Unitate-kontsumoak eta zenbatekoa).</p>

1.b. Informazioa jasotzeko eskubidea.

Azken finean, herritarrek informazio publikoa jasotzeko duten eskubidea da, betiere legetan aurreikusitakoaren arabera. Eta informazio publiko dira erakundearen esku dauden eduki edo dokumentuak, hark bere funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.

Herritarrek informazio-eskariak planteatzen badizkiote AKri, azken horrek lehentasun osoa emango dio eskari horiek asetzeari. Horretaz arduratuko dira, hain zuzen ere, gaiaren gaineko eskumena duten langileak.

Informazioa jasotzeko eskubidea zehazteko, galdera/erantzuna metodologia baliatu dugu, gaiari buruzko ikuspegi argiagoa lortzearen.



Zein da herritarrek eskatu dezaketen eta informazioa jasotzeko eskubidearen barruan sartzen den informazio publikoa?

Informazio publiko dira AKren esku dauden eduki edo dokumentuak, hark bere funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.

Zeinek eska dezake informazioa?

Informazioa eskuratzeko eskubidea baliatu ahalko dute pertsona fisiko eta juridiko guztiek.

Edozein informazio eska daiteke?

Bai. Salbuespena izango dira konfidentzialtasuna edo sekretu profesionala zaindu behar duten elementuak edo datu pertsonalak ukitzen dituzten eta legean hala jasota daudenak. Edonola ere, hala dela justifikatu beharko da.

Mugak aplikatzeko, babes-helburua justifikatuta egon behar da, eta babes horren arabera izango dira mugak. Edonola ere, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuko dira, eta bereziki aztertu beharko da ea interes publiko edo pribatu gorenik ote dagoen, informazioaren sarbidea justifikatzen duenik.

Informazioaren zati bat soilik eskuratzeko aukera eman daiteke?

Aurreko puntuan adierazitako mugaren bat ez bazaio informazio osoari aplikatzen, informazioaren zati bat ikusteko aukera emango da, mugaren eraginpean dagoen informazioa kendu ondoren. Salbuespena izango da datuok kentzean testuak zentzua galtzen badu edo informazioa nahastuta geratzen bada. Kasu horretan, eskatzaileari adierazi beharko zaio informazioaren zein zati kendu den.

Nola baliatzen da administrazio publikoen informazioa eskuratzeko eskubidea?

Eskaria, ahal dela, bide elektronikoetan aurkezten da, webgunearen bidez, identifikazio digitala erabilita.

Aurrez aurre ere eska daiteke informazioa, AKren eraikinetako edozeinen harreran edo Durangoko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan. Horretarako, informazioa eskatzeko idazkia aurkeztu beharko da.

Eskarian arrazoiak azaldu behar dira?

Eskatzaileak ez ditu zertan informazioa eskuratzeko bere eskariaren arrazoiak azaldu.

Informazioa eskatzen duen herritarrek bere burua identifikatu beharko du?

Bai. Eskaria aurkezteko edozein bitarteko erabili ahalko da, baldin eta honako datu hauek jasotzeko aukera ematen badu: eskatzailearen nortasuna; eskatzen den informazioa; harremanetarako helbidea, ahal



dela elektronikoa, jakinarazpenak egiteko; eta hala badagokio, eskatutako informazioa eskuratzeko lehenesten den modalitatea.

Zer dela eta erabaki daiteke eskari bat ez onartzea?

Ez dira izapidetzeko onartuko, ebazpen arrazoitu bidez, honako eskabide hauek

- a. Egiteko bidean den informazioari edo argitalpen orokorrerako bidean den informazioari buruzkoak.
- b. Informazio osagarriari edo laguntzarako informazioari buruzkoak; esate baterako, oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan, barne komunikazio eta txostenetan edo organo edo erakunde administratiboen arteko komunikazio eta txostenetan jasotakoa.
- c. Hedatzeko, aldez aurretik, berriro prestatzea behar duten informazioari buruzkoak.
- d. Eskumena nork daukan ez dakigunean, informazioa ez daukan organo bati zuzendutakoak.
- e. Argi eta garbi errepikakorrak direnak edo neurritz kanpokoak direnak, lege honen gardentasun helburuarekin justifikatu ezin direnak.

Zer gertatzen da eskaria informazioa ez duen organo bat zuzentzen bazaio?

Herritarrak informazio hori daukan organoari zuzendu beharko dio bere eskaria, erantzuna ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Eskarian aipatzen den informazioa ez badago hura zuzentzen zaion subjektuaren esku, hartzaileak organo eskudunari bidaliko dio, ezagutzen badu, eta horren berri emango dio eskatzaileari.

Zer gertatzen da herritarren informazio-eskaria argia ez bada?

Eskariak ez badu aski identifikatzen informazioa, eskatzaileari eskatuko zaio hura hamar eguneko epean zehaztu dezala. Hala egin ezean bere eskarian atzean egin duela ulertuko dela ohartaraziko zaio.

ADIERAZLEAK

Argitaratutako elementu-kopurua, argitaratu beharreko kopuru osoaren aldean (%)	Helburua % 100
Erabiltzaileek AKren gardentasun-mailaren gainean duten pertzepzioa (oraindik jasota ez dagoen adierazlea)	10etik 8
AKko pertsonen erakundearen gardentasun-mailaren gainean duten pertzepzioa	10etik 8